

JANASKE

1. BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure proiektua Janaske enpresa izena du. Janaria eskaintzea/ematea dugu helburutzat, hau da, jantoki sozial bat eraikiko dugu egoera zaugarrietan dauden pertsonentzat. Bestalde, botatzen den janariaren kantitatea murriztu nahi dugu eta horretarako zaramara botatzen den janaria aprobetxatzen saiatuko gara. Dakigun bezala, supermerkatuetan oraindik jan daiteken janaria zaramara botatzen dute. Gure enpresak zaborrontzi berezi horietara botatzen den janaria aprobetxatu nahi dugu eta horrela, janariaren isuria murrizteaz gain, janari horrekin laguntza behar dutenei lagunduko diegu. Jantoki hau Zornotzan kokatuko da, eta tratu oso onarekin pertsoneri janaria eskainiko diegu. Gizartearentzako ekintza on bat egiten dugu, hau da, jendearen gosea asetzen dugu eta laguntza eskaintzen diegu. Gainera, Janaske enpresaren janaria, kalitatezkoa da. Pertsona ezberdinen beharrei zehaztuta dago, esan nahi baita zeliakoentzako janaria, begetarianoentzako baita ere, barazkijaleentzako... Gure produktuen kalitatea mantentzeko, fruta eta barazki freskoak erosiko ditugu. Inguruko nekazariei erosiko diegu produktu horiek, supermerkatuak nahi ez dituzten tomate, uraza, patatak, porruak... erosiko ditugu. Honekin produktuak merkeago erostea lortuko dugu, barazki horiek guri saltzeko aukera bakarra delako. Janaria eskaintzeaz urruti, gure bezeroak leku seguru bat edukitzea nahi dugu, hau da, gure jantokian haien etxean bezala sentitzea gustatuko litzaiguke. Horretarako, hainbat gauza egingo ditugu erosotasun hori lortzeko; adibidez psikolo bat eskaini, haien hobekuntzak anonimo bezala guri adierazteko postontzi bat jarriko dugu. Janaske proiektua sortzea nahi izan dugu gero eta jende gehiago arazo ekonomikoak dituela konturatu garelako eta dirua horrelako ekintza onetan gastatzea ondo sentiarazten gaituelako. Guk egoera horretan egongo bagina horrelako leku bat Zornotzan egotea gustatuko litzaiguke eta arazo ekonomikoak dituen jendeari zerbitzu hori eskaini nahi diegu.

